

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Axinse

UKRAINAN ZEN TXERNOBYL. Txernobyl hitzak “zizare-belarra hazten den tokia” adierazten du, hau da, *Artemisia vulgaris* belarraren gustuko lurrak. Jendarte zekenaren hondakindegia nuklearra bihurtua dugunetik ez dakit izena aldatu beharko ote diogun edo Txernobyl izaten jarraituko duen. Bizi ote da han zizare-belarririk? Eta zizare-rik? Jendea uxatu bai, baina landare jendea lasaitu eta aberastu egingo zen, agian...

Osasunei zizare-belarrak adina mesede egiten dienik gutxi izango da, bakanen bat. Nuklearrek bezala honek ere erakarri eta uxatzen dituenak ditu. Nuklear kontuak botere eta diru gose eta egarri eta gehiago direnak erakartzen ditu, eta ordaintzen dutenak uxatzen. Zizare-belarrak

intsektuak uxatzen ditu; jartzazu baratze ertzean. Erakartzen duenik ere bada: psikotropiko zalea den jendea.

Belar horrek osabide eta osagarri diren osagaiak sortzen ditu. Osagarri guztien eran osabide edo pozoizatearen arteko muga tamainan dago. Zainekoa dute tamaina hartu beharrekoak izate hori...

Zain bereko familiako diren zizare-belarra eta bere ahizpa asentsio-belarra (*Artemisia absinthium*) antz handia duten horietakoak dira, bizkiak. Bien osagarriak



HILLS-ABSINTHE.COM

erruz erabili ditugu. Eta zeinena baino zeinena mikatzagoak dira. Landare horiek jan edo edanez gero mikatzasun horrek mesede besterik ez digu egingo.

Asentsio-belarrak duen *absinthium* abizena grekoko *apsinthon* hitzetik dator. Horrek desatsegina, gozagaitza, kaltegarria, galgarria, mina adierazten du, mikatzegia, gezamina, alegia. Hitz greko horretatik dator, asentsio bezala, ia galdua dugun euskarazko axinse izena.

Belar horrekin egin izan da absenta edari mitikoa. Frantzia munduaren zilbortxo zen sasoiaren, nor bazela adierazi nahi zuenak edari hori hartu behar zuen, bere alkohol puskarrekin, %60tik gora izan ohi zuen. Alkoholaz gain tujona ere bazuen, osasungarri eta pozoizateko muga azken horren alde-ara pasarazi zuten gaia. Negozio

pagotxa galtzen ari ziren ardo ekoizleek sustatutako propaganda txarrari esker... Orain badakigu, kaltegarria izateko edan ezina litzatekeen mikatzasun maila luke, eta atzera, 1998tik, Europan onartua dago. Absenta galarazia egonagatik asentsio-belarra edo axinsea bermutean hartu da, barra-barra. Beste belarren artean osagai nagusietakoak baitzuen axinsea edo alemanez *wermuot* edo *wermuota*...



S.A.T. LEGU
LANDAREK

Biberoak SAT Legu

C/ Goitioitza Auzoa, 36 · 48196 Lezama Bizkaia · Telf:944556198
biberoaklegu@gmail.com · http://www.biberoaklegu.com

milorri
Lorezaintza ekologikoa
Jardinería ecológica

© 660 745 774 / 699 152 282
milorri@usurbil.com
Usurbil
milorriorezaintzaekologikoa.blogspot.com